ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko irailaren 10a, astelehena • 104 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Udako Euskal Unibertsitatean euskara ikastaroak egiteagatiko beka deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 413576

Erakunde esleitzailea: Amurrioko Udala.

Bulegoa: Euskara Arloa.

Amurrion erroldatuta dauden eta 16 urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoak.

Betekizunak eta horiek egiaztatzeko modua: Onuradunek ikastaroaren ehuneko 80 edo gehiago egin dutela egiaztatu behar dute ikastaroa antolatu duen erakundeak egindako ziurtagiri bitartez.

Xedea: Deialdi honen helburua da Amurrioko herritarrek Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskara ikastaroak egitea sustatzeko diru-laguntzak arautzea.

Zenbatekoa: Ordaindutako matrikularen ehuneko 50 arte lagunduko da diruz, eta gehienez ere 100 euro emango dira pertsonako eta urteko.

Diru-laguntza egozten zaien aurrekontu krediduak: 2018 ekitaldirako udal aurrekontuan bada partida bat (18.1.18.1.33592.480 zk.) Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskara ikastaroak egiteagatiko beketarako, eta 500 euroko zuzkidura du. Deialdi honen babesean emango diren laguntzak partida horretako krediduari egotziko zaizkio.

Oinarriak aztertzea, argibideak eta agiriak: Amurrioko Udaleko Gizarte Gaietako Arloan (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea, 945891161 telefonoa), eta Amurrioko Udalaren webgunean, deialdia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eta eskaerak aurkezteko epea amaitzen den arte, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Eskaerak aurkezteko tokia eta epea: 2018ko urriaren 1etik 31ra aurkeztu ahal izango dira eskaerak Amurrioko udaletxean (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea), eta posta ziurtatu bidez ere bidali ahal izango dira, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan aurreikusitako bideetatik edozein erabilita. Garaiz eta forma egokian aurkeztutako eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Aurkeztu beharreko agiriak: Eskaera orria, finantziaziorik ez jasotzearen zinpeko adierazpenarekin batera, eta egindako ordainketaren ordainagiriarekin eta ikastaroa egin izanaren Udako Euskal Unibertsitatearen ziurtagiriarekin batera.

Jakinarazpen modua: Amurrioko Udalak beka eskaeren ebazpenak udaletxeko iragarki taulan eta web orrian jakinaraziko ditu. Ukatutako eskaeren jakinarazpena ohiko posta bidez helaraziko zaie interesdunei.

Ebazteko epealdia: 3 hilabete.

Ebazpena: Eskaerak tokiko gobernu batzarraren akordio bidez ebatziko dira edo alkatetza ebazpen bidez, eta Euskara Arloak aztertuko ditu.

Errekurtsoak: Ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpena ematen denetik bi hilabeteko epean. Nahi izanez gero,

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazpena ematen denetik hilabeteko epean.

Amurrio, 2018ko abuztuaren 31

Alkatea
MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.09.10 05:39:17 Z